

2. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuñi du.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Joñaila' ren 24'an.

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Alfube, Olabide ta Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Azkue jaunak adierazten du, Lekuona urgazleari Gazteizera idatzi zaiola, orain apaiz-gai artean iratsi dan *Kardaberaz* deritzan baltzua, zer dan ta zer elburu dakañen jakin bidez. Urgazle jaun onek ordea ez du ezer erantzun. Orégatik Euskaltzaindiak ezin lezake ofetzaz ezer erabaki.

2. On litzakela dio Azkue berak, Napañoako *Euskal-adizkideak*-i idaztea esanik gerturik egon dituzela oraingo Agintariak ultzen diran garairako. Orduan baltzu onek Euskaltzaindiak ainbat edo geyago egin lezake euskeraren alde.

3. Aita Intzak dio gogo aundiz ikusi duela Iruñako *Pensamiento* ta *Voz*-ek euskeraz oraindik ere idatzi nai dutela, Napañoan euskera dakitenak dirauten artean. Aita Intzak dionez, Euskaltzaindiak, laguntza ezaririk, arlo ortan sartu bear lukela.

4. Gañera adierazten du Aita Intzak berak Baleztena ta Usetxi aldun jaunai beren iritxia eskatu bear zaiela, euskal-egunak beriro Napañoan egitekotan, edo bestela Euskaltzaindi berak idazki bat zuzendu

Gobernadoriari, euskalegunekiko asmoak agerturik ta Aldundiaren itzalpean egiten dirala gañera esanik. Euskalegunak egiteko eña aukera liteke edo Lekunbeñi edo Auritz edo Narbarte.

5. Iruñako apezpiku jaunari idatzi bear zaio, alegindu dedila, ango barutiko lekaide ta lekaimeak darabilzkiten ikastetxetan euskera sañarazteko.

6. Azkue jaunak ontatik artu du oñ, Begoñako Apaizburuari idatzi bear zaiola, esateko: euskal-eliztañak diran tokietan euskal-itzaldiak egiteko, *Boletitiñak* agintzen duan ezkeroz, agindu ori bete dezala bere Begoñako elizan.

7. Urkijo jaunak erderazko lan egoki bat irakuri du, *lau añietako* jolatza gai duena, euskaltzain batzuek ontan argibiderik ematen oten lezaioketen jakiteko.

8. Aita Iraizoz-i idatzi bear zaio, bere lan-asieraren zai-zai gaudela ta agindu bezela, *Erizkizundi-Irukoitza*-ri ekin lezaiokela lenbailen.

9. Altube euskaltzañak, antzinako gutun batetik, euskal itz ta aditzaren adibide gañantzidunak jaso ditu. Gutun edo esku-idazti au Gernikako eliza batekoa da. Euskaltzaindiak erabaki du: Altube jaunaren lana gure *Euskera'n* argitaratzea.

10. Kanpion jaunak urngo batzañaldirako laga du bere lan baten irakurpena.

11. Azkue jaunak bere *Mortologia* irakuri du. Ta beste gai batzuek bigarko utzi-ta otoitzez amaitu da batzañaldi au.